Iztegi-lanetarako ta *Euskera* argitaratzeko, Ormaetxea jaunaren ordez izendatzea on litzake. Bañan nondik eta zer atera liteken oŕen saritzat ikusi arte, ez da ezer erabaki.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzaŕaldia.

---

**Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian 1932'ko Otsailaren 25'an.**

Batzaŕaldi ontara euskaltzain jaun abek datoz: Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitz egin da.

1.° Ormaetxea jaunak eŕi ta etxe batzuen izengoitiak azaldu dizkigu ta *Euskera*'n argitaretzeko gorde dira.

2.° Azkue jaunak *modismos* pil̃a aundia irakuŕi digu, ta uŕengo batzaŕerako beste gai batzuek utzi ditugu.

---

**Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian 1932'ko Otsailaren 26'an.**

Auŕeko batzaŕaldian izendatzen diran jaunak agertzen dira, ta otoitzez asi da.

1.° Altube jaunaren idazki bat irakuŕi da. Idazki au alde auŕetik euskaltzaiñak irakuŕi-ta zeukaten.

Altube jaunak deritza: 1.° eŕiak darabizkien erdalitzak Iztegian ezaŕi litezkela a) baldin euskal-eŕi geienetan itz oiek zabaldurik badaude ta b) itz oien euskal-berdiña askoz gutxiago erabiltzen bada. 2.°